



LARRABETZUKO HAPO-REN ALDAKETA PUNTUALA
LEGINA GOIKOA GOLF EREMUA

PARTE-HARTZE TXOSTENA

2021 MAIATZA





EDUKIA:

1.	SARRERA ETA AURREKARIAK	3
1.1	Larrabetzu HAPO aldaketa puntuala	3
1.2	Arau-esparrua betetzearen justifikazioa.....	3
2.	PARTE-HARTZE PROZESUAREN DESKRIBAPENA	4
2.1	Helburuak, metodologia, eragileak, mekanismoak eta mugak.....	4
2.2	Komunikazioa eta dibulgazio materiala	5
2.3	Partaidetza adierazleak.....	6
3.	ONDORIOAK	8



1. SARRERA ETA AURREKARIAK

1.1 Larrabetzu HAPO aldaketa puntuala

Parte hartzeko prozesu hau HAPOren ALDAKETA PUNTUALAlean kokatzen da, LEGINA GOIKOA GOLF EREMUARI dagokiona. Helburua gaur egun golf eremua duen derrigorrezko erabilera araubidea aldatu eta bertan eman daitezkeen erabileren sorta zabaltzea da.

HAPOren Aldaketa honen sustatzailea Larrabetzuko Udala da eta izapidetzea Udalari ere dagokio. 7.000 biztanletik beherako udalerria denez, behin betiko onspena Bizkaiko Foru Aldundiaren mende dago.

Parte-hartze fasea dokumentuaren idazketa lan-talde berberak egin du. Tal de hau osatzen Ihintza Baltasar Arregi, Ula Iruretagoyena Busturia eta Mikel Ormazabal Aizpurua arkitektoek.

1.2 Arau-esparrua betetzearen justifikazioa

Parte hartzeko prozesuak bi jendaurreko bilkura eta dibulgazio-materialaz osatuta dago. Horrek Herritarren Partaidetzarako Programan ezarritakoa betetzen du, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 8. eta 108. artikulua eta 46/2020 Dekretua betez, zehazki 3. artikulua.

2. PARTE-HARTZE PROZESUAREN DESKRIBAPENA

2.1 Helburuak, metodologia, eragileak, mekanismoak eta mugak

2.1.1 Helburuak

LEGINA GOIKOA GOLF EREMUAN INGURUKO LARRABETZUKO HAPO-REN ALDAKETA PUNTUALAREN inguruan proposatutako parte-hartzeak honako helburuak bilatzen ditu:

1. **Larrabetzuko bizilagunak informatu** eremuaren gaur egungo egoeraren inguruan, bai eta aurrekarietara sarrera bat eginez.
2. **Modu irisgarrian kontzeptu tekniko eta juridikoak azaltzea**, hiritarren ulermen argiago bat bilatuz.

Udalaren proposamena azaldu, bere ondorio posibleak aurreratuz, bai eta ezarritako helburuak lortzeko eman beharreko urratsak azaltzea.

Helburu informatiboa betetzeko saiorako **dibulgazio materialaren** bitartez egin zen. Dibulgaziorako tresna nagusia **web orrialdea** izango da, eta bertan eskegiko diren saioetarako prestatutako **aurkezpenak**.

3. **Benetako parte-hartze bat aurrera eramatea, eraginkorra dena eta ahal bezain pertsona-kopuru handi eta anitzena kontuan hartuko duena.** Parte-hartzaileen artean besteak beste gizarte-eragileak, elkartekideak eta elkarteetakoak ez diren herritarrak, adin guztietakoak hartuko dira kontuan.
4. **HAPOren Aldaketaren proposamenei ekarpenak egitea, adostasun kolektibo handiago bat lortuz.** Ikuspuntu tekniko-politiko herritarrenarekin osatu nahi da, esperientzialagoa baita, gizarte-talde, adin eta esperientzia aniztasunean oinarritutako ikuspuntuak aintzat hartuz eta eduki tekniko aberastuz.

2.1.2 Metodologia eta parte-hartzeko estrategia

Planteatutako helburuak lortzeko asmoz, metodologia hasten da parte hartze saioetarako eduki eta materialak prestatzen.

Parte-hartze dinamika bi saio jarraituetan oinarritzen da, biak izaera informatibokoak. Lehenengoan gaiaren problematika eta berau lantzeko modua azalduko da. Bigarrenean ordea, lanketaren emaitzak azaltzeaz gain, hiritarrei parte-hartzera gonbidatuko zaie galdera tartean, suertatu daitezkeen galderak erantzuteko eta orotariko ekarpenak jasotzeko.

2.1.3 Eragileak

Parte hartzeko prozesua Larrabetzuko guztien eskura egon zen, baina arreta bereziarekin eragile-talde hauei:

1. Golf zelaiaren transformazioan parte hartu duten eragileak
2. Larrabetzuko bizilagunak
3. Larrabetzuko elkarteak
4. Beste batzuk

2.1.4 Parte hartzeko mekanismoak: jendaurreko bilkurak

Jardunaldi ireki bat burutu zen bi saioetan banaturik. Lehena diagnosiaren ingurukoa izan zen, eta bigarrena proposamenaren ingurukoa. Biak egun berean eta bata bestearen jarraian egin ziren.

Jendaurreko bilkurak maiatzaren 18an izan ziren, 19:00etan eta 19:30etan, Anguleri jauregian. COVID-a dela eta, beharrezkoa izan zen alde zuzenetik izena ematea, afroaren arabera, segurtasun distantzia eta baldintzak bermatzeko.

2.1.5 Parte-hartzearen mugak

Herritarren parte-hartzeak Larrabetzuko HAPOn Aldaketarako ekarpenak bildu bazituen ere, ekarpen horiek ez direla lotesleak eta ezin direla izan esan beharra dago. Hori horrela da, alde batetik, eskumena Udalarena delako, eta, bestetik, HAPOn Aldaketak berak hainbat muga dituelako. HAPOn Aldaketa udal-tresna juridiko bat izan arren, udalaz gaindikoa administrazioetatik datozen hainbat baldintza aintzat hartu behar ditu; Estatuko, Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko legeria eta araudia jaso behar ditu.

2.2 Komunikazioa eta dibulgazio materiala

Dibulgazio-materialak, tresnak eta kanalak ondokoak izan ziren:

- **Web-orria** (HAPOren beste aldaketa batzuei buruz batera egin daitekeena), honako orrialde hauekin:
 - Hasiara: HAPOren Aldaketari buruzko oinarrizko informazioa
 - Parte-hartzea: jendaurreko bilkurei buruzko informazioa
 - Dokumentazioa: dibulgazio-materiala eta dokumentazio teknikoa argitaratzea
- Jendaurreko saioetarako **aurkezpena**. Saio publikoetan aurkeztu ondoren, web-orrian argitaratu izan ziren.
- Kartela, jendaurreko bilkuren berri emateko.
- **Prensa-oharra eta sare sozialetarako materiala (Udal FB)** saioen aurretik prentsa-ohar bat eta testu labur bat egin zen Udal FBen.

Komunikaziorako eta parte hartzeko material guztia egoki landu zen, **hizkuntza ez sexista erabilita**. Gainera, **elebitzan** egin zen, euskaraz eta gaztelaniaz, EAEko bi hizkuntzen ofizialtasuna aintzat hartuta. Saioa Euskara hutsean egin zen, nahiz etagaztelaraz egindako galderak gaztelaraz erantzun ziren.



JENDAUURREKO BILKURAK
SESIONES PÚBLICAS

LEGINA GOIKOA
BASERRIAREN INGURUKO EREMUA
ÁMBITO PRÓXIMO AL CASERÍO
LEGINA GOIKOA

MAIATZAK **18** MAYO
19:00 – 21:00
ANGULERI JAUREGIAN
IZENA-EMATEKO INSCRIPCIÓN PREVIA:
www.hapo-larrabetzu-eus

LEGINA GOIKOA BASERRIAREN
INGURUKO EREMUIAREN
HAPOren ALDAKETA PUNTUALA



MODIFICACIÓN PUNTUAL
DEL PGOU DE LARRABETZU
DEL ÁMBITO PRÓXIMO AL
CASERIO LEGINA GOIKOA

Kartela



Udal twitterrean argitalpena

2.3 Partaidetza adierazleak



Parte hartzaileen kopurua

Sesio irekietara Larrabetzuko 5 bizilaguna azaldu ziren, talde idazleko bi kide, Alkatea eta udal arkitektoaz gain.

- Diagnostiko saioa: 5 pertsona.
- Proposamen saioa: 5 pertsona.

Genero araberako banaketa

Generoen araberako banaketa honakoa izan zen:

- Diagnosi saioa: 2 emakume %40, 3 gizonezko %60
- Proposamen saioa: 2 emakume %40, 3 gizonezko %60

3. ONDORIOAK

Oro har, aurkeztutakoaren aurrean erantzuna positiboa izan zen, eta HAPOnen aldaketaren helburuekin bat etorri ziren herritarrekin.

Bertaratutakoek hainbat ekarpen egin zituzten:

- Eremua ekipamendu-erabilera publikorako erabiltzeko aukeraren inguruan galdeginda, eta une honetan etorkizuneko erreserba gisa hirigintza-egokitzapena egiteko aukerari dagokionez, talde idazleak eta udal-ordezkariek argitu zuten eremua berroneratzeko proiektu zehatzik ez dagoenez, ez dela egokia eta honek ez lukeela Bizkaiko Foru Aldundiaren oniritzia izango, nahiz eta hori etorkizunean gerta daitekeen. Une horretan formulatu beharko da erabilera hori ahalbidetzeko marko juridiko berria.
- Hoteleko eta eskolako eraikinen etorkizunaren inguruko kezka agertu zen, arazo iturri bat izango direla aurreikusten baita, eta ingurumenean eta paisaian eragina izango duela, epe laburrera zein.
- Eraikinetan etorkizunean erabilera sozialak eman ahal izatea begi onez ikusi zuten hainbat parte-hartzailek.
- Eremuan gaur egun gertatzen ari diren lur-mugimenduei dagokienez, udal-ordezkariek argitu zuten, lur-jausiekin lotutako lur-mugimendu jakin batzuk egiteko baimena eta lizentzia egon arren, eta hauen araubidepean hasi baziren lanak, Udalak ofizios ikuskatu dituela eta egingo dituela, eta dagozkion hirigintza-espeditate zehatzaileei hasiera emango diela hirigintza-lizentziaren eskaeran jasota ez dauden obrak hautemanez gero.
- Golfaren erabileraren urteen ondoren, lurzorua eta lurpeko uren egoerari buruzko kezka azaldu da, baita horren inguruan hartu beharreko neurriak ere. Gai horiek HAPOnen aldaketaren ingurumen-izapideen barruan egin beharreko ingurumen-azterketaren xede izango dira.